

IRAKURLEAK MINTZO

Leenengo, nere burua aurkeztu nai dut; 36 urte ditut eta ezkondu nago, seme-alaba biren aita izanik. Martxoak 18'ko Z. ARGIAN «Euskal herrietatik» sailean, ERNE izenpetua, «Euskeraz» izenburuarekin, irakurgai bat dakar.

Nere iritzia ematera ausartzera noa, zure idazlan orri. Badirudi, gaur euskera aurkitzen dan bezela ikusiz, Zegaman, Euskalerrian, gazteen erruz gertatzen dela, zuk dioenez, auek ez euskeraz itzegite ori. Orain nik diot: nolako giroa dute gazte auek beren etxeetan? Gazte auen gurasoek euskeraz mintzatzen ote dira norrairekin eta beti? Orrela balitz...

Areago, teleikuskina duten etxeetan, zeinrentzat ekarri zuten geienbat, semeentzat ala gurasoentzat? Ba al dakigu nolako kaltea egiten dion tramunkulu onek euskerari? Gaurko euskaltzale den gurasoak eduki al dezake au etxean? Neretzat emen dago kakoa. Geure etxeok giroa nolako dugun, orrelakoak izango dira gure gazteak, ez izan kezkarik.

Beraz, gaur Euskalerrian badu aukera piska bat euskal gaiez etxeok giroa kitsatzeko: idazti, astekari, ipuin, disko, irrati. Kontuan izan Z. ARGIA gaurko astekaria dugula baiña jende askok arzen badu, egunkaria ere aterako litzakeela. Geure eskuan dugu onen etorkizuna.

Adibide batzuk jarriko ditut: Ikastolako irteran, gurasoek joaten gera semeen bila eta askok eta askok beren artean erderaz egiten dute, baita umeari ere. Orretarako eraman ikastolara?

Donostiako elizetan, amabietatik ordu bata eta erdiak arte, 40 meza ditugu eta bat bakarra euskeraz. Giro onan zer itxadon ditekete?

Ikastolako batzarra zela egun batean eta teleikuskina zer edo zer zegoelako etzen batzar ori ospatu. Au al da euskaltzaleasuna? Arri-itu egiten al zera, «Erne» jauna, gazteak erderaz ari direlako?

Lerro auek ez ditut inori minik emateko asmoarekin egin, lo zorroan gaudenok esnatzeko garaia badela esateko baizik. Gazteak erru piska bat izango dute, baiña nere iritziz ggu gera errudun aundienak.

Emendik agurtzen zaitut «Erne» jauna; elkar ezagutzeko gogoia badu; orrelako lagunak behar ditugu, euskeraren lagun kuttunak. Zaindu eta zabaldu dezagun gure izkuntza.

B.A.T.
(Bergara)

Beasaingo Ikastola

Datorren Ikastaroan (1973-74ean) beren haurrak Beasaingo Ikastolara bidali nahi dituztenek, martxoaren 21etik apirilaren 18ra (biak barne), jo dezatela Erdiko Ikastolara (Erauskin kaleko 4-garrena) arratsaldeko 5-etatik 6etara eta asteazken edo ostiralek, edo ta Errekarte-alde edo ta Porteria-kora, haurren izenak ematera.

Hau, datorren Ikastaroko ditugun beharrik jakitzarren egin nahi da eta mesedez, gerorako utzi gabe, orain egitea erregutzen dugu.

BEASAINGO IKASTOLA-ZUZENDARITZA
(JUNTA)

mallabia

Badira hiru lau hillabete atal hontara ezer ez dudala bialdu, hori dela eta gaur zoezer idaztera nator.

Egia esan ez dut zer esan haundirik arkitzen Mallabian; Puntu hasiko dira ermitetako jaiak eta orduan izango dugu nahiko barri bai zuei kontatzeko.

Hori dala eta, herriko barri ttipi batzuk eman ondoren, gure albo-ko Ermuari lotuko natzaio.

Urtarrilean hasteko ziren eskola barriak, eta gehienetan gertatzen dan bezala gureak ere izan dute atzerapena; Orain Apirilaren erdi alderuntz hasiko diren itxura dute.

Jaiak antolatzen dituen gazte taldeak ensaiu eta batzarrek egiteko tiki bat eurenagatu nahi du. Hortarako beharrezko diren balmenei itxaroten dagoz Toki hau lehengo kanpo Santu zaharra dagoen leku berean izango da edo izango dalakuan dagoz...

Mallabiak hartu-emon gehienetan daukan herri hoietako bat Ermua da, honen arrazoirik haundiena herri biak alkar ukutzen egotea baita.

Hogei mila bizi-lagun inguru dituen herri honek, eta heurretatik lautik hiru baino gehiago kanpotik etorritakuek.

Errez ikusi dezakeenez inon baino herri kultura falta gehiago nabari da herri hontan, baina itxura denez ez ditu harritzen gehiegi euskal kultura falta honek Ermuko gazteok.

Badira bost edo sei talde ezberdin hainbat gauzatan ari direnak; batzuek jan edanetarako soziedadara jotzen dute, beste batzuek baditue beren zentro politikoak, bada exkursioak eta hitzaldiak antolatzen saiatzen dan bat ere eta azkenek nere ustetan lanik gehien egiten duen SCOUT taldea. Hauek orain dala gutxi Barandiaranen etnografiako inkesta egiten ibiliak dira baserriz baserri; bada beste talde bat, nahizta oraindik zer egiten dabien ez zait posible izan jakitea, langilleriaren ixileko superkontzientizaziua ez baldin bada behintzat.

Dena dela ez dut ikusi oraindik programatzeko bat ere euskeraz. Baita izatea atzeritar asko dagoelako, baina abiada hontan segitzen badute Ermuko kulturaegileek 50 urte geroago be antzera jarraituko dugu, edozer gauza erdera utsean ikusten.

Baten batek esan du hor zehar atzeritarrei esker gure herria kontzientziatu dala. Nik neuk ez dut ikusten herri horretan kontzientzia asko eta hainbat gutxiago lehen esan dugun herri kontzientzia Ermua euskal herriko herri bat dan ezkerok.

Mallabian be badirela problema esango du ermuarren batek eta ez du arrazoirik falta, baina ez nuke nahi atal hau Mallabirendako soil soilik izan daiten, beraz ahal ditudan neurrian inguruko barriak be aipatuko ditut.

TXURRUKA

aiete

HITZALDIA

Duela egun batzu, Ezi-Toki klub delakoak ziklo bat izango denaren lehenengo hitzaldia antolatu zigan. Hitzaldiaren haria Santo Tomas lizeoari buruz izan zen eta bertako zuzendari den Karmele Altzueta eman zigan aparteko bere gaitasun horrekin. Gai erabilienak: haurren heziketa, ekonomia aldeko hestuasunak, testu libururik eza e.a. Bere inbitazioari jarraituz, hurrengo larunbatean lizeoko lokalak, ikasgelak eta jolastokiak ikusten izan ginen aietar batzu. Berehalaxe ohartu ginen eginik asko dagoenez eta egiteko oraindik areago. Mila esker hemendik Karmele Altzueta iaio, eskolaz jantzi eta apalari!

EZI-TOKI

Klub honek, duela gutxi, billera nagusia egin du eta bertan harturiko erabakiak honako eskabide hauk zuzentzea izan dira:

—Bazkide emeak billera nagusietara joateko eskubidea eta bertan botoa ematekoa eskatzea.

—Billera nagusietan parte hartzeko adina edo edadea 18 urtetara jaxtea eskatzea.

—Aiumentatuak egin behar dituen obrak funtsezkoak izan ditezakea eskatzea eta.

—Aieteko Elkarteak hauorako pilotaleku itxi bat lortu behar duela eta hortan saia dedila eskatzea.

Komentario txiki bat orain. Klub honen izena Ezi-Toki da. Izen polita benetan. Habituak ez du, ordea, frailea egiten ez eta eman ere klub bati izen soilak behar lukean nortasuna. Zer hezikera eman dezake emakume bazkideek hitzik ez botorik ez duten klub batek? Zein arrazoitan finkatzen da araudiko klausula hori? Emakumeak beti erreklamatu gisa erabilia izan behar ahal du? Zertarako hitzaldi zikloak antolatu, gero horrelako burugabekeriak ez baztertzekotan? Klubaren prestijioari eta hauzoarenari berari oso on gutxi egiten dio horrelako jokabide negargarria mantentzeak. Ea hurrengo billera nagusian besterik gertatzen den.

EUSKAL HERRIARI BURUZ LIBURUAK

Beste askotan bezala, lehengo batean ere Manterola liburutegira ioan ginen, Donostiako izen bereko kalean dagoenera. Eta hara nola bertan eskaini ziguten Euskal Herriari buruzko liburuen zerrenda bikaina bat. Benetan interesgarria euskaldunontzat katalogo hau. Euskal gai guztiak sailkatuak dauka, XXII sail dituelarik. Ba dute, bada, euskal letrazaleek nun dastaturik.

ZENBAIT PROBINTZIA GERA?

Errenteriako euskal astearen (diogun bikainaren) azkenean gertatua. Hain zuzen larunbat gaueko festibalean. Abeslari batek Arabako kanta zahar bat abestu zigan. Gero Arabakoa ez den beste bat. Hurrena berriz ere Arabako beste kanta zahar bat. Honela aurkeztu zigan azkeneko hau abeslariak berak: «Eta orain beste Arabako kanta zahar bat...». Guk, aietearrok, Araba bat bakarra ezagutzen dugu. Nun ote dago bestea...?

TXERTUBI

beasain

DANTZA LEKU BERRIA

Lehen LOREA izenez ezagutzen den dantza leku bat genduen Beasainen. Orain (Santa Agedaz gero...) beste bat ireki zaigu SUNDAY izenez eta diotenez, lehengo baino ondotoz handiagoa omen da. Itxura denez, egunoroko ogia bezain beharrezko ditugu tokiok kontsumo-gizarte honetan! Leku eta aukera faltaz behintzat, ez gara «dantzan» edo beste zerbaitetan ikasteke geldituko! Ez alajaina!

ERESKA

Izen honekin ireki berria da baita ere, halako denda-gela toki apain bat. Gorputzaren itxurak zaintzeko eta alferrikako haragiak xahutzeko soinketa-leku, sauna, igurtziketa eta abarren zerbitzuak izan behar dute bertan. Oraingoan, baldarrenek ere, lirainduren bat hartu beharrean gara Beasainen!

JAI NAGUSIETARAKO

Herriko jai nagusietarako egitarau antolaketak eta beraren bete-tzean parte hartu nahi duten guztiak, bilera-dei bat egin berria da GAZTEEN BILTZARRA. Bileraren bat ere egin izanen da honez gero eta aurtan ere zerbait ospetsua itxaro dugu beasaindarrok,

baldin eta aurreko bi urtetakoaz oroitzen bagara behintzat eta jendea lanerako gogo berdinarekin aurkitzen bada.

GARIZUMA

Aurtan ere, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Beasaingo Andre Mariaren parrokian, gogojardun saio bakarra izan da euskeraz. Zahar nahiz gazte, ezkondu ala ezkonze, haur ala heldu, euskaldun orok arazo eta molde berdinak ditugu nonbait erlijio eta kristau bizitzan. Kasta apartekoak izaki nonbait!

BAHITUAK

Azkeneko zenbait gertakizun dela bide, gure herritar batzuk ere, bahituak izan dira. Herrian guztion ezagunak direnez, oroit gaitzen beraien eta senditarren uneaz!

ARGI-INDARRA

Jakin ahal izan dugunez, herriko muinetik at dauden etxe eta lasserri batzuetara argi-indarra hobeiki heltzearen edo... lan batzuk egitera doaz. Beroien kostoa, miloi laurdenen bat inguru edo izanen omen da.

SAN MARTINGO BASELIZA ETA ETXEA

Igaz bigarren parrokia bihurtu zen San Martingo Baseliza eta etxearen jabea bere inguruko lurrekin, Diputazioak eta Udaletxeak zuten oraindano. Orain ordea, Diputazioak Udaletxeari eskaini dio bere jabea zatia eta Udaletxeak Beraz, hemendik aurrera, herriko onartu eta eskertu du eskaintza. Udaletxearena gelditzen da.

MURUMENDI

olabeaga

Behar bada, gutxi ezagutzen dugu Bilboko hauzune hau; izan ere txikia ta kaskarra dogu. Ezaguna, izatekotan ere, bertako itsasontzi lantegiegaitik, baiña ez bertako jendemu du ta bizimoduagaitik.

Hauzuneak bostehunen bat familia batzen ditu, zeharo sakabanatuak heurak. Nerbioi bazterreko mendi aldapan eraikia dogu hauzune guztia, etxe eta pisu bazterreko luzera guztian hedaturik ditugula.

Hauzune soil bat izan arren, oraindano halako herri giro kutsurik ere badau, neurri baten. Orain urte batzuk arte, goitik beherako herria zirudian, baina etxe bloke eskerra batzuk egin dituenetik hona, kanpotar jendea ere aurrez etorri eta, nortasun gabeko bihurtu jaku. Kanpotar jende horrek sarri askotan ez dau ezelango kezka modurik herriarekiko, eta bertako betidaniko jendea motel eta makal geratzen da.

Bestalde, hauzune honek problema astunak ditu, batez ere hurgintza aldetik; karretera meharra, ezinbestean, ta troka mailaz bete,

gainera; gauaz iluntasun eta erdi itzalean dago, hiru lau argi foko kenduez gero, behar dan besteko argirik ez dagoela. Bilbaoko Udal ohoregarriak entzungor egin, eta kitul Etxeak bata bestearen gainean, baldreskiro ezarriak.

Jende gaztearen aldetik ta beste arlo batzuetako arazoak utz ditzagun alde batera, ze negargarriak izan arren, luze eroango nindukee ta.

Edozein modutan ere, zenbait gazte eta ezkonbarri mugitzen hasiak dira parrokia giroan, nolabaitko nortasun bat emon nahirik hauzuneari.

Abiadura honen ikusgarri, emon dezagun iragan San Joseetako jaien berri. Jendea harridura bizian geratu da, hainbait odola bor-bor hasi jakela zerbait egin gurarik:

—Dantza talde polita dantzatu jakun, lehenbizikoz gainera, bertako ume eta motikoe osatua.

—Bezpera gauaz, 18an, euskerazko kanta txapelketa bat eratu zan, hauzuneko gazte ta umetxoan kanta ederrak entzun ahal izanez.

—Eta astelehenez, 19an, Euskal Kantaldi bat. Oihartzunak, Akelarre, Natxo eta Elu Lekeitioko genduzela kantari.

Askorentzat ustekabea gertatu dan jaialdi honek itxaropen zabala ireki dau. Aurrerantzerako ere amets haundiak sorteraiz ditu.

Lanak beti izan ohi ditu eragotz-pideak, eta hemen ere bada batzuen aldetik kontrako grina. Baiña danon artean ahalegin handi bat egin, Herriak beti irabazle urten ohi du.

«...herri bat hiltzen / ez duk hain errez».

OLAKOA

bazkari onaren zainpargarria
eta txarraren estalgarria

LA CASA
DEL CAFE
Juan Iriondo
San Marcial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTITATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 41 20 65

DONOSTIA

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIA

URTETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA